


ezagutzen al
duzu Donostia?

Tximistarri

Tximistarri deituriko harkaitza, itsas ertzean, Igeldoko Arrokaldean dago. Hain zuzen ere harkaitz handi honetatik mendebaldera hasten da Igeldoko herria, hemen bukatzen baitzen Ibaeta aintzinako auzo donostiarra. Harri erraldoi hau aurkitzen den paraje ederrera joateko biderik politena Lekueder (edo Balentin) ostatuaren ondotik abiatzen da. *Zentellazulua* eta *Kontramaisu* arrokaldeak gure eskuinean utzita, *Gaztelutxo* izeneko muinora heltzen gara. Gure aurrean, mendebaldera, balea baten itxura duen harkaitz izugarri bat ikusiko dugu itsas ertzean. Harkaitz hau bitan zatitua dago, erdian erreten handi bat ikusten zaiolarik. Hauxe dugu *Tximistarri*.



Tximistarri. «Tximistak bitan zazititu zuen harkaitza.»

Antzinako istorioak dienez, tximista beldurgarri batek jo eta erditik zartatu zuen harkaitza. Honela gertatu zen edo ez jakiterik ez dago, baina paraje eder honek beti hunkitzen gaitu bertara inguratzen garen gehienok. Igeldoarren arte-

an beti errespeto handiz begiratu izan zaio inguru honi eta gaur, harkaitza itsasoaren erosioa dela medio, isolatua dago lur eta landareztatik, baina kontatzen da antzinan elkarturik zegoela, eta baserritar ausartak garo edo inosto-

rretara inguratzen zirenean gurdi edo lerekin, *Tximistariaren* gainean jiratzeko maniobra egiten omen zuten, ekintza hau balentria bat kontsideratzen zutelarik.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

BAGERA / IRUTXULO

KAMISETAK

Kolore, tamaina eta modelo desberdinak ditugu. Salneurria: 1.200, 1.500 eta 1.700 pezeta.


Helbidea: Aldamar kalea eta Pasealeku Berriaren izkina • Tfnoa.: 43 12 28

*Eskura ezazu
zurea!!*

ORTZAIKA

jatetxea

Bataioak - Jaunartzeak
Despedidak - Ezkontzak



Ortzaika auzoa - Tfnoak.: 83 32 51/83 30 46 - ORIO



URKO

Gas
instalakuntzak

• iturgintza
• kalefakzioa

Madrid hiribidea 10 • Tfnoa.: 45 30 89